

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 809/2019 Erabakia, abenduaren 17koa. Onestea turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen 2020ko deialdia, toki erakundeei eta irabazteko xederik gabeko elkarteei zuzendua

Arabako Lurralde Historikoa oso leku berezian dago, historian zehar bideen eta bidaiarien elkargunea izan baita. Horrek eragin nabarmena izan du gure lurraldeko turismo sektorearen sorreran eta garapenean.

Turismoa geroz eta garrantzi handiagoa duen sektorea da. Gaitasun handia du aberastasuna eta lanpostuak sortzeko, garrantzi eta eragin ekonomikoa handitzen jarraitzeko, eta gero eta indar handiagoa du Arabako ekonomian. Hain zuzen ere, Arabako turismo sektorea, gaur egungo atzeraldi ekonomikoa eta familien eta gainerako eragile ekonomikoen gastu murrizketa latza gorabehera, sektorerik dinamikoenetakoa da, eta azken urteotan izandako bisitari kopuruak eta horiek Araban emandako gauen kopuruak itxaropentsuak dira.

Arabako Lurralde Historikoa baliabide asko eta askotarikoak dauzka sektore honen garapena oinarritzeko: baliabide naturalak, artistikoak, kulturalak, ondarekoak, gastronomikoak, paisaiaren ingurukoak, eta abar; horiek guztiek berezko nortasuna ematen diote. Lurralde irekia da, koloreanitz, modernoa eta abegitsua.

Gure lurraldeak aisialdirako egitura sare zabala dauka eta horrek, ingurune natural, kultural eta sozialarekiko errespetu handiko kontzientziarekin eta komunitatearen balioekin batera, batez ere turismo berde, aktibo eta iraunkorrari lotutako irudia eratzea ahalbidetu dio. Horri guztiari gastronomiaren alderdia gehitu zaio, bai eta Araba, bere balio enogastronomikoa dela eta, helmuga erreferente izateko helburua ere. Irudi horrek ematen dizkion aukerak oharkabean pasatzen ez uzteko edo alferrik ez galtzeko, ezin du eginkizun pasiborik onartu; aitzitik, era proaktiboan jokatu behar du, bere eskaintza eta baliabideak bisitatzen dutenen edo bisita dezaketenen nahi eta eskakizunetara egokitzeko moduan.

Beste alde batetik, Arabako Foru Aldundiak helburu nagusi hauek dauzka: turista kopurua handitzea eta haien batez besteko egonaldia luzatzea, eta arabarren turismoa sustatzea Arabako Lurralde Historikoan. Horretarako, turismo berdearen, turismo solidario eta arduratsuaren eta gastronomiaren alde ez ezik, turismo irisgarriaren eta kirol turismoaren alde ere egingo da. Era eta aldi berean, sustapena eta on-line marketina ere bultzatuko dira; eta, horretarako, on-line estrategia eta komunikazio plan bat diseinatuko da, zeinak Araba nabarmendu eta erakargarriagoa egingo duen eta informazioa erabilgarria eman eta erabiltzaileekin trukean jardutea ahalbidetuko duen.

Horrez gainera, Arabako Foru Aldundiak uste du gure lurraldeko turismoaren garapenari egiten dion ekarpena izan behar dela elkarlanean jardutea Araban eta Euskal Autonomia Erkidegoan ari diren gainerako erakundeekin eta eragile ekonomikoekin. Dena dela, erakunde lankidetzaz ez litzateke nahikoa izango Arabako turismo sektoreari indar handia emateko, baldin eta Arabako udalek, herriek edota kuadrillek eta elkarteek produktuak garatuko ez balituzte eta gure ondarea, kultura eta ingurumena ezagutarazteko eta babesteko jarduketak egingo ez balituzte.

Hala, azken urteotan horiek guztiek turismoa sustatzeko hainbat jarduketa egin dituzte, Araba helmuga turistikoa gisa bultzatzeko ahaleginetan. Ekintza horiek antolatzean, dituzten finantza baliabide eta baliabide teknikoek urritasunari aurre egin behar izan diote. Oztupo horiek turismoaren sektorearen garapenean eragin txarra izan ez dezaten, Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoa eta turismorako eskaintzen dituen aukerak gure lurraldetik harantzago ezagutzera emateko mota horretako jarduerak sustatu nahi ditu.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiak onetsi zituen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneko eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

Oinarri horien onarpenaren ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, laguntzetarako deialdia ezarri behar da, turismoa sustatzeko ekimenak berari lotu beharko baitzaizkio.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKIA

Lehenengoa. Onartzea turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen 2020ko deialdi publikoa, zeinaren gehieneko hornidura 590.000,00 euro izango baita. Deialdia erabaki honi erantsita doa.

Bigarrena. Deialdi hori arautzen da Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa araubidean dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorre jarraituz (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua), bai eta erabaki honen eranskinean xedatutakoari jarraituz ere.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontuan Arabako kuadrillei, udalei eta irabazteko xederik gabeko entitateei turismoa sustatzeko esleitzen zaizkien aurrekontu partidetatik ordainduko dira. Deialdiko espediente behin betiko ebazteko baldintza izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea 2020ko ekitaldirako aurrekontu antolaketan.

- 360.000,00 euro kuadrillentzat.
- 145.000,00 euro udalentsat.
- 85.000,00 euro, irabazteko xederik gabeko erakundeentzat.

Laugarrena. Ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina Diputatuen Kontseiluari erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabete igaro baino lehen aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

BELÉN GONZÁLEZ BENITO

ERANSKINA

TURISMOA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO LAGUNTZEN 2020KO DEIALDIA,
TOKI ERAKUNDEEI ETA IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ELKARTEEI ZUZENDUA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan turismoa sustatzeko jarduerak babes-tea, lehiaketa bidez dirulaguntzak emanez.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak kuadrillen, udalen eta irabazteko xederik gabeko erakundeen sustapen turistikorako Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontuko gastu partiden kontura ordainduko dira, eta zenbatekoak izango dira 360.000,00 euro kuadrilletarako, 145.000,00 euro udaletarako eta 85.000,00 euro irabazteko xederik gabeko erakundeetarako.

2.2. Saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren. Horretarako ebazpena emango du, deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

2.3. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partiden hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 igo ahalko da gehienez, dagozkion aurrekontu transferentzien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinak geratzen badira.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak hauexek eskuratu ditzakete:

a) Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak.

b) Arabako Lurralde Historikoko udalak, baldin eta turismo bulegoa edo turismoko informazioarako puntua badute, eta gutxienez bost urteetatik lau zerbitzuak ematen ari bada.

c) Irabazteko xederik gabeko elkarteak, probintzia eremukoak. Elkarte horiek Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan inskribatuta egon behar dute, eta beraien xede soziala turismo sustapena izango da edo, bestela, proiektu turistikoko edo gastronomiko bat garatuko dute Arabako Lurralde Historikoan. Betiere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren iritziz, proiektu horietan jasotako ekintzak azpimarragarriak izango dira lortu nahi diren helburuen edo helmuga turistikoen hedaduraren aldetik. Landa garapenerako elkarteak kanpoan garatuko dira berariaz.

3.2. Aurreko 3.1 apartatuaren c) letran aipatutako onuradunek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza jaso aurretik.

Eskaera aurkezteak baimena emango dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari biltzeko Arabako Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzak eman beharreko ziurtagiriak.

3.3. Beren-beregi baztertuko dira Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izenduen bat jaso duten eskatzaileak (esleitzeko garaian hitzarmena izenpetuta egon ala ez), baita laguntza lerro honetako lehenagoko deialdien bidez emandako dirulaguntzak ezarritako epean egin edo justifikatu ez dituztenak ere, salbu eta baldintza hori ez betetzeko arrazoiak nahikoa justifikatuta badaude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

- Turismoa sustatzeko materialak diseinatzea, egitea, maketatzea, itzultzea eta inprimatzea.
- Turismoa sustatzeko programaren baten barruan egiten diren jardueren gaineko publizitate ekintzak, mailingak eta buletinak.
- Seinaleak jartzeko diseinu eta aholkularitza gastuak, mendi ibilaldietarako eta turismo berderako soil-soilik.
- Turismoko produktuak zein natura, gastronomia edota kultura arloko ibilbide tematikoak sortzea, hobetzea, sustatzea eta merkaturatzea, eta horri buruzko kanpo aholkularitzako gastuak, eta turismo ekitaldiak antolatzea. Hala ere, kirol eta/edo kultur izaera duen oro, dela edukian, dela eskatzailearen sozietate helburuagatik, diruz lagunduko bada, lurraldearen turismo sustapenerako izan behar du, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren alde aurreko isilbidezko oniritzia eduki behar du.
- Turismoko web orriak eta, oro har, gailu mugikorretarako aplikazioak diseinatzea, eguneratzea eta itzultzea. Ez da dirulaguntzarik emango web orri horien erregistro eta hosting gastuetarako eta gainerako mantentze gastuetarako. Erakunde onuradunak banner bat ipini behar du bere web orrian nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren turismo atariarekin lotuta.
- QR kodeen ezarpenarekin eta beacons teknologiarekin zerikusia duten gastuak, plaken kostua barne, gastu hori ezinbestekoa baita dagokion aplikazio informatikoan edo web espazioan jasotako informazioa deskargatzeko.
- Inguruko turismo baliabideei buruzko argazki erreportajeak eta ikus-entzunezkoak, baldin eta erakunde kontratatzaileak argazkien jabetza bereganatzen badu eta dohainik erabiltzeko eskubidea ematen badio Arabako Foru Aldundiari. Argazkiak eta ikus-entzunezkoak dohainik erabiltzeko eskubide hori beren-beregi jaso beharko da eskaeraren memorian.
- Eskatzailea gizarte sareetan egon ahal izateko egin beharreko diseinuko eta programazioko gastuak.
- Bisita gidatuen gastuak.
- Erabilerarako ingurumen planak eta/edo kudeaketa inteligenteen eta/edo jasagarrien ereduak
- Turismoko informazioa hobeto kudeatzen laguntzen duten informatikako aplikazioak.
- Kanpo aholkularitzako gastuak, zuzeneko lotura dutenak kasuan kasuko eredu edo sistemen arabera kalitate, irisgarritasun, nahiz iraunkortasun aipamena edo ziurtagiria lortzearekin, azken helburua ziurtagiria edukitzea izan ala ez.

- Turismo azoketara joateak eragindako gastuak, kuadrillentzat. Salbuespenak hauek:
 - Joan-etorri gastuak direla eta, hauek diruz lagunduko dira: tren edo autobus joan-etorri txartel bat edo, autoz joanez gero, 0,29 euro kilometroko, soilik Arabako Foru Aldundiak presentzia aktiboa daukan azoken kasuan.
 - Salbuespenez, eta soilik FITUR Nazioarteko Turismo Azokaren kasuan, tren edo autobus joan-etorri txartel bi edo, auto bakar batean joanez gero, 0,29 euro kilometroko; baita bi pertsonen ostatu gastuak ere, baina dirulaguntzaren zenbatekoa, kasu horretan, ez da izango 100,00 euro baino gehiago pertsonako eta autoko.
 - Otordu eta garraio gastuak eta gau bat, bi edo hiruko ostatu gastuak diruz lagunduko dira, baldin eta aldez aurretik eta berariaz eskatzen badu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak, ALHko turismoa sustatzeko standaren ardura izateagatik. Edonola ere, dirulaguntza ematen denean, benetan egin eta frogatu diren gastuetarako soilik emango da, eta zenbatekoak ez ditu honako muga hauek gaindituko: 21,00 euro bazkari edota afaritarako, 0,29 euro kilometroko eta pertsonako eta autoko 100,00 euroak, hurrenez hurren.
- AFAk zein turismo azokatan parte hartzen duen, haiexetara sustapen materiala bidaltzeagatik ordaindu beharreko gastuak. 3.1 artikuluan jasotako onuradunentzat baino ez.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatzea turismoko sustapen eta zabalkunde jarduerari laguntzeko edo turismo bulegoak nahiz informazio edo interpretazio zentroak kudeatzeko. Aurreko 3.1. artikulua a eta b idatz zatietan dauden onuradunentzat baino ez.
- Ostatu eta dendetan jarritako turismo informazio txokoen diseinua, aholkularitza eta muntaketa.
- Turismoko familiarizazio bidaiak (Fam-trip, blogtrip eta press-trip deritzenak) antolatzea, helmuga komunikabideetan erakusteko eta bisitariak erakartzeko; eta bisita teknikoak antolatzea, lanerako metodologia oso zehatz eta dinamikoarekin eta oso helburu zehatzak jarrita, besteak beste, ikastea eta gure lurraldera ekarri ahalko diren ideia berriak bilatzea. Bai fam-trip, blogtrip eta press-trip horiek bai bisita teknikoak dirulaguntzaren xede izan daitezten, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren isilbidezko oniritzia beharko da.
- Turismo arloko jarduera berrien bideragarritasun azterlanak.
- EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritako betebeharra betetzeko onuradunek egin behar dituzten gastu guztiak, deialdi honetako 11.2 artikuluan jasotakoaren arabera.
- 4.2. Diruz lagundu daitezkeen gastu horiei dagokienez, soilik onartuko dira jarraian zehazten diren dirulaguntzen gehieneko mugak -kontzeptu moten arabera hartuta, oro har- gainditzen ez dituzten aurrekontu lagungarriak, baina salbuetsi egingo dira bereziki berritzaileak diren ekitaldiak edo erakunde publiko eta pribatuen arteko nahiz eskualdeen arteko lankidetzak garrantzitsuak berekin dakartenak, halakoetan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak mugak gainditzea proposatu ahalko baitu. Onuradunek jaso dezaketen gehieneko dirulaguntza gutxitu dezake Balorazio Batzordeak, baldin eta desoreka argia badago diru baliabideen eta aurkeztutako proiektuen kopuru zein kalitatearen artean.
- Turismoa sustatzeko eta publizitaterako material orokorra argitaratzea eta inprimatzea: 3.000,00 euro, oro har, eta 8.000,00 euro kuadrillentzat eta zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udal onuradunentzat. Muga horietatik kanpo izango dira Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak Arabako Lurralde Historikoa sustatzeko material guztiari irudi eta aurkezpen bateratu bat emateko jarraibideen ondorio den sustapen materialari buruzko gastuak.
- Turismo bulegoak nahiz informazio eta interpretazio zentroak kudeatzeko gastuak, eta turismoko sustapen eta zabalkunde jarduerari laguntzeko kanpoko zerbitzuak: 20.000,00 euro

kuadrillentzat eta zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udal onuradunentzat eta 10.000,00 euro gainerakoentzat.

- Bisita gidatuak: 12.000,00 euro.
- Ekitaldi bereziak, eta turismoko produktuak zein natura, gastronomia edota kultura arloko ibilbide tematikoak sortzea, hobetzea, sustatzea eta merkaturatzea: 20.000,00 euro orokorrean eta 40.000,00 kuadrillen kasuan.
- Bideragarritasun azterlanak, eta seinaleak jartzeko diseinu eta aholkularitza gastuak: 6.000,00 euro.
- Argazkiak eta ikus-entzunezko materialak egitea: 6.000,00 euro. Gastu muga horietatik kanpo izango dira Arabako Foru Aldundiaren turismo atarian jartzeko argazki eta ikus-entzunezkoen gastuak.
- Turismoko web orriak, gizarte sareak, QR kodeak, gailu mugikorretarako aplikazioak eta garapen informatikoak: 9.000,00 euro.
- Kalitaterako, irisgarritasunerako eta lehiakortasuna hobetzeko aholkularitza gastuak: 6.000,00 euro.
- Fam-trip, press-trip eta bisita teknikoak: 6.000,00 euro.

4.3. Gastu hauengatik ez da dirulaguntzarik emango:

- Material ez suntsikorraren gastuak eta inbertsio gastuak, materiala nahiz immateriala izan.
- Material inbentariagarria hornitu, jarri, garraiatu eta abarren gastuak.
- Prestakuntzarekin zerikusia duten gastuak, edozein eratakoak.
- Ibilgailuetan eta establezimenduetan errotuluak jartzeko gastuak.
- Turismoa sustatzeko materialen banaketa fisikoaren gastuak, salbu eta banaketa horren xedea azoketan parte hartzea bada.
- Funtzionamenduko gastu arruntak, hala nola alokairuak, argia, telefonoa, aldizkarietarako harpidetzak, aseguruak eta bulegoko materiala.
- Erakunde eskatzailearen barruko langile gastuak.
- Higiezinaren alokairu gastuak.
- Interneten sartzeko kuotak eta elkarteei ordaindutako kuotak, aldizkako informazio bulletinenak eta aldian aldiko gainerako gastuak.
- Kuadrillen egunak, eskualdeetako azokak...
- Dirulaguntzaren xede diren lehiaketetako sariak.
- Merchandising materialak (sustapenerako materialak) erostea eta banatzea.
- Kalitate ziurtagirien gastuak eta ziurtagiria eman duen erakundeak fakturatutako ikuskaritza gastuak. Lehendik eskuratutako kalitate ziurtagiriei eusteko gastuak.
- Sustapen ekitaldien gastuak (lunch, bazkari, jai eta abarrekoak).
- Xede nagusitzat kirola eta/edo kultura sustatzea daukaten ekitaldiak.
- Babeste gastuak.
- Telefono terminalak eskuratzea, nahiz eta haien artean aplikazio informatikoak egon.
- Zerga, lan, kontabilitate, lege zein administrazio aholkularitza.
- Partaidetza kuotak elkarrean.

4.4. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal bada, inolaz ere ez dira diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez. Beraz, irabazteko xederik gabeko elkarteei dagokienez, BEZa ez da diruz lagundu daitezkeen gastua izango, salbu eta BEZaren aitortpena aurkeztetik salbuetsita badaude.

4.5. Eskatzailearen eta hornitzailearen arteko lotura dagoenean, gasturako dirulaguntza emango da baldin eta hiru eskaintza eskatzen badira zerbitzua edo inbertsioa egiteko, eta, eskaintzarik merkeena hautatu ezean, horren arrazoiak justifikatzen badira.

4.6. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

4.7. Aurkeztutako eskaeran sartzen badira jarduera edo gastu partidak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren ustetan nahiko laguntzen ez dutenak lurraldearen sustapen ekonomikoan, partida horiek atera egin ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

5.1. Deialdi honetako onuradunek Arabako Lurralde Historikoan kokatu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren emaitzak.

Dirulaguntza jaso dezakete:

– 2020. urtean hasitako jardueretatik, 2020ko abenduaren 11 arte gauzatzen direnak, egun hori barne.

– 2019ko azken hiruhilekoan hasitako jardueretatik, 2020ko abenduaren 11 arte gauzatzen direnak, egun hori barne, baldin eta ez badira diruz lagundu aurreko deialdietan.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Dirulaguntzarako onartzen diren aurrekontuei aplikatu beharreko dirulaguntza ehunekoa (ikus Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 7.3 oinarri orokorra) ehuneko 80 izango da.

6.2. Nolanahi ere, toki erakundeentzako gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa, aurreko ehunekoak aplikatuz ateratakoa, ezingo da izan 70.000,00 eurotik gorakoa. Udal onuradunak zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gutxiago baditu, eskura dezakeen gehieneko dirulaguntza 20.000,00 eurokoa izango da.

Irabazteko xederik gabeko elkarteen kasuan, aurreko ehunekoak aplikatuz ateratako gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan 20.000,00 eurotik gorakoa. SEC 95 Kontuen Europako Sistemaren eta Aurrekontu egonkortasunaren Legearen baldintzetan foru sektore publikoaren partaide diren erakundeek, berriz, gehienez 15.000,00 euroko dirulaguntza eskuratu ahal izango dute.

6.3. Hala ere, deialdia ebatzitakoan, partida bakoitzean ez badira 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kredituak agortu, sortutako gerakina erabili ahal da gehitzeko ehuneko 90eraino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehunekoa hainbanaketaz, betiere deialdian finkatutako mugak gainditzen ez badira.

6.4. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan laguntza baten onuraduna izan bada antzeko gastuak izan eta programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, dirulaguntzarako onartzen den oinarria egokituko da araudi honetan ezartzen den gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.5. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 1.500,00 euro.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio Batzordea honela osatuta egongo da:

Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen erregistro elektronikoa, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2020ko otsailaren 28an, 14:00etan bukatu.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoa zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

- Egin beharreko turismo sustapeneko jardueren azalpena eta jarduerok egiteko arrazoiak.
- Aurreikusitako gastuen aurrekontu xehatuta.

– Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua) edo azoketara edo fam-trip, blogtrip edo press-trip delakoetara joateak eragin ditzakeen gastuen gutxi gorabeherakoa.

– Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzatzen hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000,00 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onartu zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

8.4. Eskatzailea udala denean, eskaerarekin batera, 8.3 artikuluan eskatutakoaz gain, honako informazio hau ere aurkeztu beharko da:

– Udalak turismo bulegoa edo turismoko informazioa puntua duela eta azken bost urteetatik lautan, behintzat, zerbitzu horiek eskaini dituela egiaztatzen duen ziurtagiri zuzen zigilatua eta izenpetua.

8.5. Eskatzailea irabazteko xederik gabeko elkarte denean, eskaerarekin batera, 8.3 artikuluan eskatutakoaz gain, honako informazio hau ere aurkeztu beharko da:

– Estatutuen fotokopia.

– Elkarteen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria, edo, fundazioen kasuan, erregistro ego-kian inskribatu izanaren frogagiria.

– Diruz lagundutako jardueretan BEZaren aitortpena aurkeztu beharretik salbuetsita ego-tearen frogagiria, behar denean.

9. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

9.1. Aurkeztutako ekintzak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera baloratuko dira:

a) Proiektuaren kalitate teknikoa. Proiektu guztiaren justifikazioaren, haren helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Aurkeztutako proiektuaren koherentzia orokorra (gehienez, 20 puntu).

Proiektua, oro har, koherentea da bere jarduera guztietan	20 puntu
Proiektua, oro har, koherentea da bere jarduera gehienetan	10 puntu
Proiektua, oro har, ez da koherentea	0 puntu

b) Proiektuak oro har zer berrikuntza maila dakarren eta/edo zer osagarri berritzaile dakartzan metodologiari, baliabideei, materialei, ekintzei, hedapenari edo jardueretako zati diren beste batzuei lotuta (20 puntu gehienez).

Proiektua, oro har, berritzailea da eta zenbait osagai berritzaile eta/edo ekitaldi edo jarduera propio sortu berriak ditu	20 puntu
Proiektua, oro har, berritzailea ez bada ere, baditu osagarri berritzaileak metodologiari, baliabideei, ekintzei, hedapenari... lotuta eta/edo ekitaldi edo jarduera propio sortu berria.	10 puntu
Proiektua ez da batere berritzailea (ez jarduerak osotasunean hartuta oro har ez haren elementuetan).	0 puntu

c) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 20 puntu).

Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila oso ona izan da.	20 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik egon da, baina enpresa proiektua ez da nahikoa zehaztu eta definitu, edo eskaera aurkezteko unean eskaera ez da osorik egon, baina geroago osatu egin da, eta enpresaren proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da.	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

d) Jarduketek zenbaterainoko ekarpena egiten duten turismo okupazioaren desasoikatzeko eta/edo askotariko turismo eskaintza egiteko (gehienez, 20 puntu).

Jarduketek ekarpena handia, turismo okupazioaren desasoikatzeko eta askotariko turismo eskaintza egiteko	20 puntu
Jarduketek ekarpena handia, turismo okupazioaren desasoikatzeko edo askotariko turismo eskaintza egiteko, baina ez biak batera	10 puntu
Jarduketek ekarpena baxua edo ezer ez, turismo okupazioaren desasoikatzeko eta askotariko turismo eskaintza egiteko	0 puntu

e) Aurkeztutako jarduerak zer mailatan egokitzen zaizkien Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren turismoa sustatzeko jardueri. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak proiektuari interes berezikoa iriztea (gehienez, 10 puntu).

Egokitapena argia edota zuzena da, eta interes bereziko proiektu irizten zaio.	10 puntu
Egokitapena argia edota zuzena da, baina ez zaio interes bereziko proiektu irizten.	5 puntu
Egokitapena lausoa edota zeharkakoa da, eta ez zaio interes bereziko proiektu irizten.	0 puntu

f) Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzen xedeak zenbateraino gauzatu eta bete diren (gehienez 10 puntu).

Gauzate eta betetze maila altua (ehuneko 80 baino gehiago onartuan esleitutakoaren aurrean)	10 puntu
Gauzate eta betetze maila ertaina (ehuneko 60 baino gehiago onartuan esleitutakoaren aurrean)	5 puntu
Gauzate eta betetze maila apala (ehuneko 60 baino gutxiago onartuan esleitutakoaren aurrean) edo alde aurretik dirulaguntzarik ez duena	0 puntu

9.2. Deialdi honen 3.1.c) artikuluan zehaztutako onuradunek, dirulaguntza lerro honen onuradun izan ahal izateko, deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete beharko ditu eta, horrez gain, aurkeztutako jarduketaren multzoak, gutxienez ere, 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

9.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, eman beharreko ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

10.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoari jarraituz jardungo da.

10.3 Ebazpenek administrazio bidea agortzen dute, eta haien aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

11.1. Laguntza lerro honen kontura finantzatzen diren jarduketetan Arabako Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko da leku nabarmenean.

11.2. Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, ekitaldi publiko nahiz pribatuak, aurkezpen, amaiera ekitaldi eta antzekoak alde aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herri-tarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

11.3. Web orriren bat sortu edota eguneratzeko dirulaguntza jasotzen bada, hura Arabako Foru Aldundiaren turismoko web orriari estekatuko zaio.

11.4. Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek eta udalek, laguntza lerro honetako onurak eskuratuz gero, laguntza emango dute, ahal duten neurrian, Arabako Foru Aldundiaren turismoko web orriaren euren inguruko turismo baliabideei buruz dagoen informazioa eguneratzeko, eta edozein aldaketa gertatzen denean horren berri emango diote Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

12. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, ebazpena onartutakoan ordainduko zaie, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

12.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordaintzeko bete-beharra onartzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2020ko abenduaren 11ko 14:00etarako (egun hori barne):

- Egingdako jarduera guztien azkeneko memoria.
- Diruz lagundutako jardueren gastu eta diru sarreraren eta/edo finantzaketaren taula, egoitza elektronikoa zehaztutako eskaera inprimakian ondorioetarako ageri den ereduaren arabera.
- Fakturen eta gainerako frogagiri baliokideen jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak; kuadrilla eta udalei, konpultsa gisa, aurkeztutako fakturak benetakoak direla adierazten duen lehendakariaren, alkatearen edo idazkari-kontuhartzailearen izenpea eta zigilua duen egiaztagiri dataduna onartuko zaie. Egiaztagiri horrek faktura guztien zerrenda zehatza jasoko du.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta memorian nabarmenduta.
- Hiru eskaintzak eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (bakar-bakarrik partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak ezarritako 15.000,00 euroko mugara heldu edo hortik gorakoak izan badira).
- Dosier eta/edo euskarri informatikoa (CD edo antzekoa), dirulaguntza gaiaren argazkiak eta/edo bideoak jasoko dituen.

Profesionalek emandako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko bete-beharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren beste ehuneko 50a ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatuz eman dezan, aldeztu aurretik onuradunak, kuadrilla eta udalentzat 2021eko otsailaren 26ko 14:00ak arteko epean eta elkarteentzat 2021eko apirilaren 2ko 14:00ak arteko epean (egun horiek biak barne), Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan fakturen ordainketaren frogagiriak aurkeztu beharko ditu, eta haien zenbatekoa, gutxienez, dirulaguntza jaso dezakeen oinarriaren bestekoa edo gehiagokoa izan beharko da. Formatu hauetako edozein erabili ahalko du horretarako:

- Jatorrizko banku ziurtagiria, ondoko datuak zehazten dituen: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea, eta izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.
- Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta edo zigilua jarrita, datu hauek zehaztuta: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Kuadrilla eta udalei dagokienez, fakturak ordaindu izanaren datadun egiaztagiria, lehendakariak, alkateak edo idazkari-kontuhartzaileak izenpetua eta zigilatua, non hauek zehaztuko diren: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordaindu zeneko eguna.
- Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Diruz lagundutako jarduera zehazten duten erosketa edo zerbitzuen agiriak edo ordainagiriak, bidezko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

– Kuadrilla eta udalen kasuan, kontabilitateko P agiriak, dirulaguntza jaso duen erakunde publikoaren zigiluarekin.

12.5. Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, baina fotokopia konpultsatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa ez hortik gorakoa (edo haren kontrabalioa atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

12.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

12.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

12.8. Hasieran onetsitako aurrekontu diruz lagungarriaren mugarekin, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Betiere desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren isilbidezko oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten direnean, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzi hori.

12.9. Arestiko paragrafoetan dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko nahiz hura kobratzeko, adierazitako dokumentazioa elektronikoki aurkeztuko da Erregistro Elektronikoa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

12.10. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztu beharreko gutzia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12.11. Zenbait kasutan lehenengo emanaldia egin ahalko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa. Hala ere, ez da ezarri emandako funtsak bermatzeko inolako araubiderik.

12.12. Onuradunek gastuen justifikazioak aurkeztu ondoren, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak, diruz lagundutako jarduketak benetan egin direla egiaztatzeko. Bisiten kopurua eskura dauden baliabideen arabera izango da.

12.13. Baldin eta 6.2 apartatuan ezarritako dirulaguntza mugetako edozein aplikatu bada, onargarria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak txostena alde aurretik txostena eginik, diruz laguntzeko den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

13.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen

organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

14. artikulua. Garapena

14.1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio foru agindu hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onartzeko.

15. artikulua. Eskaerak egokitzea

15.1. Erabaki honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahalko dira ofizioz.

16. artikulua. Azken klausula

Erabaki honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.